

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1925

EBAZPENA, 2022ko apirilaren 26koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita Bilakatu COVID-19 Programaren 2022ko ekitaldiko aurrekontu-kreditua handitzea, helburu honekin: dirulaguntzak ematea COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio-, produktu-, zerbitzu- eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio- edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 2ko Aginduaren bidez, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio-, produktu-, zerbitzu- eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio- edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko Bilakatu COVID-19 programa arautu eta 2022rako deialdia egin zen (2022ko martxoaren 10eko EHAA, 50. zk.)— Agindu horrek 25.000.000,00 euro bideratzen ditu xede horretarako.

Agindu horren 2. artikulua.— Baliabide ekonomikoak— hau xedatzen du:

1.— 2022ko ekitaldirako EAeko aurrekontu orokorrak onartzeko 2021eko abenduaren 23ko 11/2021 Legeak baimendutako kredituen arabera, hizpide dugun dirulaguntza-deialdiak aurrekontu-estaldura nahikoa du; izan ere, 1. artikulua xedea betetzeko, 25.000.000,00 euro bideratuko dira.

2.— Emango diren dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ez da izango aipatutako kontsignaziotik gorakoa edo hura berrizetik ateratzen denetik gorakoa, betiere kreditu-loturaren erregimenarekin edo indarrean diren legeetan aurreikusitako aurrekontu-aldakuntzarekin bat etorritz, eta laguntzak ebatzi baino lehen. Inguruabar hori gertatuko balitz, horren berri emango luke Industriako sailburuordeak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen bat argitaratuz. Aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura agortzen den unean ezetsi egingo dira ebazteko dauden eskaerak, eta ez dira onartuko kreditua agortu dela argitaratu ondoren aurkeztutakoak.

Azaldutakoa dela bide, ekitaldi honetan Bilakatu COVID-19 Programara aurkeztu diren eskabideetatik ahalik eta kopuru handienari erantzun ahal izateko, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jakinaraztea 27.000.000,00 euro gehitu zaizkiola Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 2ko Aginduan kontsignatutako aurrekontu-kredituari. Agindu horren bidez, COVID-19aren eraginpean dauden eta negozio-, produktu-, zerbitzu- eta merkatu-lerroetan gaitasun berriak garatu eta dibertsifikazio- edo birlokalizazio-jarduerak egiten dituzten enpresei dirulaguntzak emateko Bilakatu COVID-19 programa arautu eta 2022ko ekitaldirako deialdia egin zen. Agindu horrek 25.000.000,00 euro bideratzen zituen xede horretarako.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a.

Industriako sailburuordea,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.